



**ENERGIA KUDEATZEKO LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. EXPEDIENTE
ZENBAKIA: 3187.**

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Aitor Ezeiza Virumbrales
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: ENERGIA KUDEATZEKO LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
2.- Zer beharri erantzun behar zaion: Eremu batzuetan aholkulari aditu baten laguntza behar da, hau da, arazo berberak dituzten beste industria batzuekin harremana duen eta beste bezero batzuentzat horrelako arazoak konpondu behar dituen aditu baten laguntza. Zerbitzu horrek arauekin lotutako zalantzak eta zalantza praktikoak argitzeko aukera ematen digu, beste era batera nekez argitu ahal izango liratekeenak.
3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Zerbitzu espezifiko bat da eta, haren ezaugarriak direla eta, ez da loteka banatuko. :
4.- CPV: CPV kodea: 71356200-0 Deskribapena: Laguntza teknikorako zerbitzuak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☐ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)	HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA (78.000,00) EURO
---	---



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 312.000,00 euro

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:
2026. urtea: Partida: 227.07.169.31 78.000,00 euro (BEZ kanpo)

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI

☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: . Hileroko ziurtagirien bidezkoa. Unitate osoak edo ehunekoak ziurtatuko dira, dagokion moduan.

10a, 10b eta 10c unitateak ez dira zuzenean kontratu honekin ordainduko, Energia Aurrezpeneko Ziurtagirien sarreretatik deskontatuta baizik.

8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikagarria

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa
URTEBETE (1)

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

Hiru (3) luzapen gehienez, urtebetekoa bakoitza.

4.- Bermealdia: 18 hilabete. Txostenak adierazitako epean eguneratu beharko dira, dagozkion aldaketak edo birfakturazioak egin edo akatsak zuzendu ondoren

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Enpresa adjudikaziodunaren eta Ur Partzuergoaren instalazioak

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez. (78.000,00 euro).



G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- 36/2023 Errege Dekretuaren arabera, «subjektu ordezkari» gisa ziurtatuta egongo da.
- Azken hiru urteetan egindako eta kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda. Urteko zenbateko metatua exekuzio handieneko urtean kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren ehuneko 70ekoa edo gorakoa duten zerbitzuak bakarrik hartuko dira kontuan.
- Zerbitzua ordezkatzeko duen azpiegitura teknikoa eta antolamendukoa.

Besteak beste, honako hauek xehatu behar ditu:

1. Kontratua/faktura Platts, Thomsom Reuters, Intercontinental Exchange (ICE) edo eskatutako prezioak entregatzea ahalbidetzen duen beste edozein plataforma, gasolioaren eta gasaren ziurtagiriak zehaztu ahal izateko.

Zehazki:

- Brent «Dated Brent Crude Oil», hemen argitaratua: Platt's Oilgram Price Report «European Average Prices. (US\$/bbl)
- High CifNW nazioarteko kotizazioa, Platt's European Marketscan-en arabera.

2. Tarifikatzaileen karga-kurbak deskargatzeko bitarteko teknikoak.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Behe-tentsiorako langile kualifikatu bat izan beharko du, norberarena edo azpikontratatua, 614/2001 Errege Dekretuaren arabera (arriku elektrikoa), honako lan hauek betetzeko:

- Tentsioa kentzea eta berrezartzea
- Tokiko maniobrak
- Hurbiltasunean egiten diren lanak
- Eta neurketak, entseguak eta egiaztapenak

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1. dokumentua. Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia.

- Behar bezala justifikatu beharko du nola egingo dituen Zeanuriko eta Galindoko txostenak, modu automatizatuan, jasoko dituen datu gordinekin.
- Txosten-ereduen proposamena: Beteluriko instalazio fotovoltaiarako eta Arriandiko HUAko mikroturbinarako.
- Instalazio mini hidraulikoetarako txosten baten benetako adibidea.
- Bezeroetako baten errausketa- edo biogas-instalazioetarako txosten baten benetako adibidea.



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

2. dokumentua. Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak.

- Kontratuko teknikari nagusiaren prestakuntza eta esperientzia. Curriculum vitae.
- Kontratu honetan diharduten teknikarien taldea. Kontratuaren helburuarekin lotuta artatzen dituzten enpresak eta mota horretako zerbitzuetan duten ibilbidea. Teknikari nagusien ibilbidea adierazi beharko du, baita kontratu honetarako aurreikusita dituzten eginkizunak ere.
- Energia-auditoretzetan erabiliko diren neurketa-ekipoen ezaugarriak.

3. dokumentua. Hobekuntzak.

- Aplikazio batera sartzeko sarbidea. Aplikazio horretatik edozein unetan deskargatu ahal izango ditu ordueroko karga-kurbak eta ordu laurdeneroko kurbak, neurketa-ekipoek behar bezala funtzionatzen dutela frogatzeko eta potentzia-faktorea ezin hobeto erregulatzeko. Zerbitzu hori eskaintzen duen ala ez baieztatu behar du. Zerbitzua eskaintzen badu, haren ezaugarri nagusiak adierazi behar ditu.
- Adjudikaziodunak sorkuntza-puntuak kudeatzeko aukera eman dezala bigarren mailako kontzentratzaile baten bidez. CABB-BUPPk aukeratu ahal izango du bere sorkuntza-instalazioen neurketak bigarren mailako kontzentratzaile baten bidez bidaltzea, eta ez Red Eléctrica-ren Kontzentratzaile Nagusiaren bidez. Kasu horretan, adjudikazioduna arduratuko da izapide guztiak zuzenean Red Eléctrica-rekin egiteaz (egiaztapen sistematikoen eskaerak, zigiluak kentzeko baimenen eskaerak eta esku hartzeko protokoloen aurkezpena, izapide ohikoenetako batzuk aipatzearen). Zerbitzu hori eskaintzen duen ala ez baieztatu behar du. Zerbitzua eskaintzen badu, haren ezaugarri nagusiak adierazi behar ditu.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Urtebeterako kontratuaren neurketak eta unitateak jasotzen dituen kalkulu-orria erantsi da. Fitxategiaren izena hau da: Anexo_Oferta_economica_rev02.xlsx. Prezio unitarioekin bete behar da, kontratu honen PTPAren deskribapenaren arabera, eta formatu digitalean eta pdf formatuan aurkeztu behar da. Kontratuaren neurketak.

1. Kontratu-unitateak zerbitzuaren beharren eta baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzeko irizpideen arabera beteko dira; beraz, ez dago gutxieneko gasturik bermatuta. Kontratuaren arduradunak eskatuta gauzatuko dira.
2. Kontratu honen xede diren instalazioetako batzuk oraindik ez daude martxan, baina kontratu honen indarraldian zehar hala egotea aurreikusten da.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoen helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Lehendakaria:

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 70 PUNTU

Irizpide honetan 70 puntu emango dira gehienez.

Horretarako, ondoren azaldutako formula matematikoak erabiliko dira, eta haien emaitza K_1 koefizienteaz biderkatuko da, zeina honako hau den:

$$K_1 = 70 / 50$$

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoei (Bi) proportzioan baloratuko dira honako balio hauek esleituko dituzten formula matematikoen bidez:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + BBB) / 2$	48 puntu
BBB	47 puntu
$0,8 \times BBB$	46 puntu
$0,6 \times BBB$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu hauetako balioak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona.
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da. Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Formula hauen bidez lortuta Pi puntuazioaren emaitza guztiak aurretik zehaztutako K₁ koefizienteaz biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK 30 PUNTU

1.- Memoria tekniko eta exekuzio-metodologia. 12 puntu

- Behar bezala justifikatu beharko du nola egingo dituen Zeanuriko eta Galindoko txostenak, modu automatizatuan, jasoko dituen datu gordinekin. 6 puntu.
- Txosten-ereduen proposamena: instalazio fotovoltaikoetarako eta Arriandiko HUAko mikroturbinetarako. 3 puntu.
- Elektrizitate-horniduraren fakturen balioztapena aurkezteko proposamena. 3 puntu.

2.- Kontratuaren zerbitzura jarritako baliabide teknikoak. 12 puntu

- Kontratuko teknikari nagusiaren prestakuntza eta esperientzia. Bereziki baloratuko da elektrizitatea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

ekoizteko instalazioen araubidea martxan jartzeko eta aldatzeko araudiarekin lotutako esperientzia, modalitatea dena dela. REEren aurrean egin beharreko izapideak: neurketarekin eta elektrizitatea ekoizteko instalazioak martxan jartzearekin edo horien araubide-aldaketarekin loturikoak. 6 puntu.

- Kontratu honetan diharduten teknikarien taldea. Horrelako zerbitzuetan egindako ibilbidea. 4 puntu.
- Energia-auditoretzetarako kontratuaren eskura jarri diren ekipoen ezaugarriak (norberarenak edo alokatuak). 2 puntu.

3.- Hobekuntzak. 6 puntu

- Jabetzarako web sarbidea. Haren bidez edozein unetan deskargatu ahal izango ditu ordueroko kargakurbak eta ordu laurdeneroko kurbak, neurketa-ekipoek behar bezala funtzionatzen dutela frogatzeko eta potentzia-faktorea ezin hobeto erregulatzeko. 3 puntu
- Adjudikaziodunak sorkuntza-puntuak kudeatzeko aukera eman dezala bigarren mailako kontzentratzaile baten bidez. CABB-BUPPk aukeratu ahal izango du bere sorkuntza-instalazioen neurketak bigarren mailako kontzentratzaile baten bidez bidaltzea, eta ez Red Eléctrica-ren Kontzentratzaile Nagusiaren bidez. Kasu horretan, adjudikazioduna arduratuko da izapide guztiak zuzenean Red Eléctrica-rekin egiteaz (egiaztapen sistematikoen eskaerak, zigiluak kentzeko baimenen eskaerak eta esku hartzeko protokoloen aurkezpena, izapide ohikoenetako batzuk aipatzearen). 3 puntu.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.

b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.

c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaille bakarra egonik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaille egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaille egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztu badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **15 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK



L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

% 5eko edo gehiagoko zigorrek aplikatuz gero, horrek kontratua deuseztatzea ekar lezake.

Txostenetako bat 4 hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin aurkeztuz gero —bi aldiz edo gehiagotan—, edo horietako bat 6 hilabetetik gorako atzerapenarekin aurkeztuz gero, kontratua deuseztatu ahal izango da. Era berean, energia-aurrezpeneko ziurtagiriak aztertzeko txostena 3 hilabeteko epean ez aurkeztea edo energia-aurrezpeneko ziurtagirien salmentagatiko sarrera adjudikaziodunaren akats edo atzerapenagatik galtzea kontratua deuseztatzekeko arrazoia izan daiteke.

Zigorrek

1.- Txostenak entregatzeko epea hau izango da: behaketa-aldiaren hurrengo hilabeteko 28aren ondorengo lehen laneguna (larunbatak kanpo); hau da, urtarrileko datuak otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dira. Hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin entregatutako dokumentuak 0,5eko faktorearekin ordainduko dira, prezio unitarioaren arabera. Eta, bi hilabetetik gorako atzerapenarekin entregatuz gero, ez da ezer ordainduko. Kontratua deuseztatuz gero, ordainketatik deskontatutako zenbatekoa zigor gisa hartuko da.

2.- Adjudikaziodunaren erruz dirulaguntzaren bat galtzen bada, zeregin horretarako lanak ez ordaintzeaz gain, dirulaguntzan eskatutako zenbatekoaren % 5 deskontatuko zaio (500 € gutxienez).

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztageria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Ezinbestekoa da ordezkaria izatea. Kontratuaren teknikari nagusiak bete dezake eginkizun hori.